



**EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO
PLAN ESTRATEGIKOA
V. PLANGINTZALDIA
(2013-2017)**

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

1.1. ARAUTEGI OROKORRA

1.2. ZIERBENAKO UDALAK EUSKARAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO HARTUTAKO ERABAKIAK

2.- XEDE NAGUSIA

3.- ERAGIN EPEA

4.- HELBURU OROKORRAK

5.- PLAN BERRI HONEN ERAGIN EREMUA

6. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

1.- SARRERA

1.1. ARAUTEGI OROKORRA

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak **Euskararen Erabilera arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean** dauka bere hastapeneko erreferentzia.

Herri-aginteei gagozkielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko eskubidea. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, **1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak**, euskal herri-administrazioetako lanpostu zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, euskaraz derrigorrean jakin beharreko lanpostuei dagokienez.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arabera, **1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak**, araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri-administrazioek euskararen erabileraren normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintza aldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitea aurreikusten du, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurriak.

Aurreikuspen horien artean, hizkuntza normalkuntza prozesua abiarazteko oinarrizko tresnatzat jotzen ditu aipatutako dekretuaren 4. artikulua euskararen erabilera normalizatzeko planak. Hain zuzen ere, 18. artikulua dio entitate bakoitzak 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika, bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko direla euskararen erabilera planetan.

2003ko abenduaren 23an onetsitako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza

eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan oinarrituta, Euskara Zerbitzuak “Zierbenako Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa – V. plangintzaldia 2013-2017” dokumentua prestatu du bere onespenerako.

Zierbenako Udal Batzari dagokio, beraz, “Zierbenako Udal barneko Euskararen Erabileraren Plan Estrategikoa” onartzea. Edozein modutan, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu beharko dute erakunde osoan; hainbat ekintza-eremutan hizkuntza irizpideak aplikatu beharko dituzte eta euskara lan eta erakunde arteko harreman-hizkuntza izan dadin behar beste baliabidez hornitu beharko dira.

1.2. ZIERBENAKO UDALAK EUSKARAREN NORMALIZAZIOA SUSTATZEKO HARTUTAKO ERABAKIAK

Zierbenako Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko hainbat erabaki eta neurri hartu ditu:

1.2.1.- Udalaren osoko bilkurak 2007ko abenduan 2008-2011 urteetarako Zierbenako Udal Barneko Euskararen Erabilera Plana onartu zuen.

1.2.2.- Udalaren osoko bilkurak 2011ko abenduan, Zierbenako Udal Barneko Euskararen Erabilera Planaren 2012ko abendura arteko luzapena onartu zuen.

1.2.3.- Udalaren osoko bilkurak 2012ko abenduan, Zierbenako Udal Barneko Euskararen Erabilera Planaren 2013ko abendura arteko luzapena onartu zuen.

2.- XEDE NAGUSIA

Plan Estrategiko honen xede nagusia Zierbenako Udalean hizkuntza ofizialen berdintasunera jotzea da, hau da, euskara izan dadila, gaztelania bezalaxe, zerbitzu - hizkuntza **herritarrekin**, harreman – hizkuntza beste **administrazioekin** eta hala hautatzen dutenen kasuan Zierbenako **Udalaren barruko** lan-hizkuntza.

Hiru harreman-eremuak euskararentzat ezinbestekoak izanik ere, herritarrekikoa da Zierbenako Udalarentzat erronkarik garrantzitsuena; izan ere, kalitatezkoa izan nahi duen administrazio batek ehuneko ehunean bermatu beharko luke zerbitzua bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan eskaintzeko moduan dagoela.

Plan honen helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik benetako berdintasunera joatea da, urratsez urrats, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuz beti, eta hain zuzen ere, horretarako hizkuntza erabiltzeko aukera-berdintasuna bermatuz.

3.- ERAGIN EPEA

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eragin-epea 2013ko urtarrilaren 1etik 2017ko abenduaren 31ra artekoa izango da, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako hizkuntza normalkuntzarako prozesuaren V. Plangintzaldia amaitzen den egunean bertan.

4.- HELBURU OROKORRAK

4. 1. Administrazioaren euskararen erabilera sustatzea eta bermatzea

- Herri administrazioek (EAEko administrazio orokorrak, foru aldundiek, udalerriek, osasun zerbitzuek, herrizaingoek, justizia administrazioak, sozietate publikoek eta zuzenbide pribatuko entitate publikoek) hizkuntza kudeaketako planak onartzea eta garatzea.

- Beren lanean euskaraz jarduteko gai diren herri-langileek eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrek administrazioekiko harremanetan euskararen erabilera modu progresiboan areagotzeko erakunde bakoitzean neurriak hartzea.
- Herritarrek administrazioekin dituzten harreman ahozkoetan eta idatzizkoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera bermatzea.
- Hizkuntza paisaian (errotulazioa eta noizbehinkako oharrak) euskararen erabilera bermatuko da:
 - Erakunde barruko hizkuntza paisaian euskararen presentzia gehitzea.
 - Administrazioaren seinaleztapen publikoan eta noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handituko da, komunikagarritasuna zainduz.
- Udalaren agerpen publikoetan euskararen presentzia eta lehentasuna bermatuko da.
- Erakundearen ahozko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehitzeko neurriak hartuko dira, betiere herritarren hizkuntza aukera errespetatuz.
- Erakundearen idatzizko kanpo zein barne-harremanetan euskararen erabilera gehituko da, sortze-lana areagotuz, komunikazioen kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.
- Zierbenako kargudun publikoek euskararekiko jarrera eraginkorra ager dezaten ahalegina egingo da, bai herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, baita euskara ere lan hizkuntza izan dadin.

4. 2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea

- Euskara zerbitzu hizkuntza ez ezik lan hizkuntza ere izan dadin bideak jarriko dira. Dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten langileen eta, edozeinetara ere, euskara erabiltzeko gai den herri-langile ororen ohiko lan hizkuntza izango da euskara ere neurriren batean, progresiboki handiagoa izango den neurrian.

- Euskara ere ohiko lan hizkuntza izango duten herri-langileei beren lan jardunerako lagungarri zaizkien bitartekoak jarriko zaizkie.
- Euskara lan hizkuntza moduan finkatzeko hartuko diren oinarri nagusiak lanpostuaren komunikazio funtzioak eta lanpostuko herri-langilearen euskara gaitasuna eta hizkuntza-jarrera izango direnez, herri-langileen euskararen aldeko jarrera, motibazioa eta onarpena sustatzea, horretarako behar den prestakuntza eta laguntza eskainiz.
- Euskaraz jarduteko gai diren herri-langileen hizkuntza erabileretan lehenetsuzko arreta jarri, eta “erabilera-helburu” zehatzak (kualitatibo eta kuantitatiboki) jarriko dira.
- Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera ziurtatuko eta gehituko da.

4. 3. Langileen euskara gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea

- Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotzeko neurriak hartzea.
- Herri administrazioetako kargudun publikoen euskararen ezagutza hobetzeko neurriak hartuko .
- Euskara lan hizkuntza duten langileentzako prestakuntza iraunkorra bultzatuko da (prestakuntza orokorra euskaraz nahiz euskara erabiltzeko prestakuntza berezia).
- Legeriak eta kudeaketa planek ezartzen dituzten irizpideez gain, lanpostuei hizkuntza eskakizunak ezartzerakoan bi faktore kontuan hartuko dira: lanpostuaren beharrezan komunikatibo nagusiak, alde batetik, eta zerbitzu-emaile nahiz zerbitzu-hartzaile diren euskal hiltunen hizkuntza ezaugarriak, bestetik.
- Hizkuntza eskakizunen derrigortasuna zenbat lanpostutan ezarri zehazterakoan Zierbenaren jardura eremuaren egoera soziolinguistikoa ardatz nagusi gisa hartuko da, kontuan izanik, halaber, administrazioen hizkuntza kudeaketako planetan aurreikusitako helburuak eta administrazio bakoitzaren hizkuntza errealitatea. Legez, lanpostu batzuetan euskara

gaitasuna derrigorrezkoa da, eta besteetan, merezimenduzkoa. Euskara gaitasuna egiaztatzea derrigorrezkoa den ala merezimenduzkoa erabakitzean, banaketa hori arrazoibidez eta proportzionaltasunez egingo dela bermatuko da.

- 86/1997 Dekretuaren aplikazioan malgutasunez jokatzea, tokian tokiko egoerei erantzuteko moduan, eta ez muga gisa.

4. 4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea

- Zierbenako Udalak bere esparrurako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak (HOEI) finkatuko ditu V. Plangintzaldi honetan. Irizpide horiek ondorengo arloetan aplikatzekoak izango dira, besteak beste: herritarrekiko ahozko eta idatzizko komunikazioa, administrazio bakoitzeko lan-arlo guztien eta herri-langileen arteko ahozko nahiz idatzizko komunikazioa, administrazioen arteko idatzizko komunikazioa, komunikazio telematikoak, ekitaldi publikoetako hizkuntza erabilera, itzulpengintza, iragarpenak eta publizitatea, hizkuntza paisaia, herri-langileen etengabeko prestakuntza eta euskara gaitasunaren hobekuntza, euskarazko komunikazio idatziaren kalitatea eta komunikagarritasuna, eta kontrataziorako hizkuntza baldintzak.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzen direla bermatuko du.
- Kontratazio hizkuntza betebeharrak ezarriko dira eta betetzen direla bermatuko du (esleipen prozeduretan baldintza-agirietan jasotzea).
- Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzearen kalterik gabe, euskarazko sorkuntzari lehentasuna ematea itzulpenaren bidezko euskararen presentziaren aurretik. Hizkuntza irizpideen baitan dagoen itzulpen politika egoki bat zehaztuko da (bereziki idazketa elebiduna bultzatuz).
- Itzulpenen eta euskaraz sortzen diren testuen komunikazio kalitatea bermatuko da.

4. 5. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera areagotzea

- Komunikazio planak garatuko dira euskara erabiltzeko gai diren herritarrek euskararen hautua egin dezaten lagundu eta sustatzeko.
- Komunikazio instituzionalean eta erakundearen izenean egiten diren jendaurreko jardueretan euskararen erabilera bultzatuko dira.

- Argitalpenetan euskararen presentzia gehituko da.
- Web orrietan euskararen presentzia gehituko da, komunikagarritasuna zainduta.
- Iragarki, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia areagotuko da komunikagarritasuna zainduta, eta betiere legeak ezarritako gutxiengoari kalterik egin gabe.
- Hizkuntza paisaiaren zuzentasun eta egokitasuna bermatuko da; horretarako, herri administrazio eta erakunde arduradunek euren eskumenpeko errotuluak eta gainerako seinaleak berrikusiko dituzte.

5.- PLAN BERRI HONEN ERAGIN EREMUA

Plan honen eragin eremukoak izango dira Zierbenako Udala eta bere erakunde autonomoak; izan ere, ondokoak dira kontuan hartuko ditugunak:

- Alkatetza, Herritarrekiko harremanak eta Idazkaritza Arloa
- Hirigintza Arloa
- Kultura, Euskara, Haur, Gazteria eta Familia Arloa
- Gizarte Ekintza Arloa
- Toki Garapenerako Arloa
- Udaltzaingoa
- Ingurumen eta Ingurugiro Arloa
- Udal Kiroldgia
- Zierbena Portua Erakunde Publikoa

Udalerrian euskararen aldeko urrats sendoak ematearen aldeko erabakiarekin jarraitzeko, Erabilera Plan hau idazterako orduan, Lanpostuen Zerrendatik kanpo dauden langileak ere kontuan hartu ditugu. Izan ere, ezinezkoa da erabilera plan orokor bat martxan jartzea, langile batzuk euskaldundu gabe baldin badaude. Hori dela eta, honako hauek dira euskararen erabilera normalizatzeko plan honetan parte hartuko dutenak:

- 1. Zerbitzu hizkuntzaren ikuspegiak ukitutako herri-langile eta zerbitzuetako langile bat.**
- 2. Lanpostuaren hizkuntza eskakizunaren derrigortasun data gainditua izanik, hizkuntza eskakizuna bera (edo baxuago bat) egiaztaturik duten 2 herri-langilek.**
- 3. Derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna duten lanpostuetan diharduten 2 langilek** ere aukera izango dute Planean parte hartzeko euskara gaitasuna egiaztaturik badute, euskararen gaitasuna neurriren batean izatea baita gakoa.
- 4.- Euskara menperatzen ez duten 14 langilek euskalduntze-alfabetatze dinamikan jarraituko dute.**

6. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA

- 1.- Hizkuntza gaitasuna
- 2.- Ahozko komunikazioa
- 3.- Idatzizko komunikazioa
- 4.- Itzulpenak
- 5.- Prestakuntza orokorra
- 6.- Tresna eta aplikazio informatikoa
- 7.- Internet eta intranet sareak
- 8.- Argitalpenak
- 9.- Hizkuntza paisaia
- 10.- Iragarpenak, publizitatea, kanpainak
- 11.- Diru-laguntzak
- 12.- Kontratazioak

1.- ZIERBENAKO UDALEKO LANPOSU ETA LANGILEEN HIZKUNTZA GAITASUNA:

Zierbenako Lanpostuen Zerrendako Langileen hizkuntza egoera

Zierbenako euskara plan honen helburua apurka-apurka, langileek hizkuntza gaitasuna lortu ahala, lanean dauden langile guztiena izatea da. Hala ere, Zierbenako Udalean erabilera plan erreal bat egiteko egungo hizkuntza egoera kontuan hartu beharra dagoela irizten dugu. Hori dela eta, erabilera plan honetan, dagokien hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten langileak eta egiaztatu gabe duten, baina, burutzen duten lana zein den kontuan hartuta, planean sartzea interesgarri iruditzen zaizkigun langileak ere sartuko dira.

Euskara lan hizkuntza bihurtzeko bide horri jorrazeko, Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta duten langileak beren lanjardunean trebatuko dira eta egiaztatu gabe duten langileak euskalduntze bidean jarraituko dute, orain arte egin den bezalaxe.

Ondorengo taulan Zierbenako langileen Lanpostuen Zerrenda eta hizkuntza egoera ikus daiteke

Izena	Titulazioa	H.E	Derr.Dat a	HE egiaztatua	Egoera
IDAZKARI – KONTUHARTZAILEA	ZUZENBIDEAN EDO ZIENTZIA POLITIKOETAN LIZENTZIATUA	4	07/12/31	4	BETETA
APAREJADOREA	ARKITEKTO TEKNIKOA	3	D/G	1	HUTSIK
APAREJADOREA	ARKITEKTO TEKNIKOA	3	09/12/31	2	HUTSIK
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	ESKOLA GRADUATUA EDO 1.GRADUKO L.H.	2	05/04/30	2	BETETA
ADMINISTRARIA	ESKOLA GRADUATUA EDO 2.GRADUKO L.H.	3	08/12/31	-	HUTSIK (ORDEZKOA)

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	ESKOLA GRADUATUA EDO 1.GRADUKO L.H.	2	08/12/31	3	BETETA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	ESKOLA GRADUATUA EDO 1.GRADUKO L.H.	2	11/12/31	3	BETETA
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	ESKOLA GRADUATUA EDO 1.GRADUKO L.H.	2	11/12/31	0	BETETA
BEHARGINA	ESKOLA GRADUATUA	1	D/G	0	BETETA
BEHARGINA	ESKOLA GRADUATUA	1	D/G	0	BETETA
TOKI- GARAPENERAKO AGENTEA	EKONOMIA EDO ENPRESA ZIENTZIAN LIZENTZIATUA	4	D/G	2	HUTSIK ORDEZKOA
ALGUAZILA	ESKOLA GRADUATUA	2	D/G	2	HUTSIK
ALGUAZILA	ESKOLA GRADUATUA	2	D/G	0	HUTSIK
ALGUAZILA	ESKOLA GRADUATUA	2	D/G	0	HUTSIK
KULTUR TEKNIKARIA	DIPLOMATURA	3	08/12/31	2	HUTSIK

ATAL ELEBIDUNAK:

Zierbenako udalari dagokion indizea: %35 da.

Emaitza hau ateratzeko ondoko datuak izan ditugu kontuan:

2006ko biztanle kopurua (EUSTAT): 1267

Euskaldunak: 280

Euskaldunak portzentajetan: %22,1

Ia euskaldunak: 327

Ia euskaldunak portzentajetan: %25,81

Hainbat lanposturi derrigortasun data ezarri behar zaie, lehen aipaturiko 86/1997 Dekretuak zehazten duen formula ebatzita: $euskaldunak + (ia\ euskaldunak/2)$.

Beraz, goiko datuei formula hori aplikatuta, **Zierbenari %35 dagokio** eta Udalak une honetan betetzen duen indizea %53.3koa da.

a) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %0tik %25era bitartekoa denean: Administratuari zerbitzua euskaraz eskaini beharko zaio bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, jendaurreko administrazio-atal elebidunak ezarriko dira. Era berean, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan eta, pixkanaka, erakundeak erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak ere egingo dira gizarte-mailako administrazio-ataletarako.

b) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %25etik %45era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira gizarte-izaerako ataletan eta, pixkanaka, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean horrela ezarrita badago, euskara erabiltzeko mikroplanak egingo dira maila orokorreko administrazio-ataletan ere.

c) Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea %45etik %70era bitartekoa denean: Aurreko atalerako azaldutako helburuaz gainera, administrazio-atal elebidunak jarriko dira izaera orokorreko ataletan, erakundeak euskararen erabilera normalizatzeko duen planean ezarritakoaren arabera.

Zierbenako Udaleko atalen sailkapena:

A-Jendaurrekoak:

Administraria (0)

Administrari laguntzailea (4)

B-Gizarte izaerakoak:

Toki garapenerako agentea (1)

Kultur teknikaria (1)

Agentea (0)

Alguazila (2)

C-Atal orokorrak:

Idazkari - kontuhartzailea (1)

Aparejadorea (2)

D-Atal bereziak:

Behargina (2)

Zierbenako Lanpostuen Zerrendatik kanpo dauden langileen hizkuntza egoera

Zierbenako Udaletxeko behin-behineko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Arkitektoa	3	0
Garbitzailea	1	0
Udal zergen arduraduna	3	3
Behargina	1	0

Zierbenako Kultur Etxeko behin-behineko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Gizarte langilea	3	2
Haurtzaro, gazteria eta familia	3	0
Ingurumen teknikaria	3	1
Administrari laguntzailea	2	0
Garbitzailea	1	0
Hezitzailea	3	2
Hezitzailea	3	1
Euskara Teknikaria	4	4

Zierbena Portua enpresa publikoko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Administrari laguntzailea	2	0
Behargina	1	0
Behargina	1	0
Gidaria	1	0
Gidaria	1	0


Zierbenako Kiroldagiko behin-behineko langileak:

Lanpostua	Eskatuko geniokeen HE	HE aitortua
Irakasle eta koordinatzailea	2	1
Administrari laguntzailea	2	1
Administrari laguntzailea	2	1
Administrari laguntzailea	2	0
Monitorea	2	0
Monitorea	2	0
Monitorea	2	0
Garbitzailea	1	0
Garbitzailea	1	0

Zierbenako arduradun politikoen hizkuntza egoera:

Arduradun politikoen euskara maila neurtzeko hizkuntzaren lau trebetasunetan nola moldatzen diren aztertu da: ulermenean, mintzamenean, irakurmenean eta idazmenean.

Hurrengo grafikoan trebetasun bakoitzean nola moldatzen diren adierazten da:



1. HIZKUNTZA GAITASUNARI DAGOZKION NEURRIAK ETA EKINTZAK

1.1. Hizkuntza eskakizunen egiaztapenak areagotu

Ekintzak:

**Derrigortasun-datak ezarrita izan ala ez izan, dagokien hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe duten langileekin euskaduntze-plan pertsonalizatuarekin jarraitu.

** HABEren euskalduntze prozesuarekin jarraitu.

** Lanpostu zerrendako hainbat lanposturi hizkuntza eskakizunak egokitu edota derrigortasun datak jarri.

** Kontratazioetan hizkuntza gaitasunak aztertu eta egoki irizitako neurri zuzentzaileak hartu.

** Udalera praktikak egitera datozen ikasleei dagokien hizkuntza eskakizuna eskatu.

** Lanpostuen Zerrendatik kanpo dauden langileen hizkuntza egoera hobetu.

1.3. Arduradun politikoen euskararen ezagutza hobetu

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu arduradun politikoen artean, erabilera planean eta horren ezarpenean inplikatzeko.

** Arduradun politikoei euskara ikasteko programa bereziak antolatu.

1.4. HE egiaztatuta duten langileen euskararen ezagutza hobetu

** Dagokien HE egiaztaturik izan arren, euren gaitasun komunikatiboa hobetu nahi duten langileentzako ikastaroen beharra aztertu eta eskaini.

2. AHOZKO KOMUNIKAZIOARI DAGOZKION NEURRIAK ETA EKINTZAK

2.1. Erakundeko ahozko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu

** Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako irizpideak finkatu ahozko komunikaziorako: telefono eta leihatilan, herritarrekin, beste administrazioekin, prentsaurrekoetan, ekitaldietan eta abarretan nola aritu jakiteko.

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean.

** Lehen harremana euskaraz izan dadin protokoloak zehaztu eta horiek betetzeko neurriak hartu.

** Adierazgarriak jarri, herritarrei euskararen erabilera-eskubideak ezagutzera emateko.

** Udalerako lanean hasten diren langile berriei, finko nahiz behin behineko izan, hizkuntza-irizpideei buruzko jarraibideak eman.

** Kiroldagiko ikastaroak euskaraz emateko baliabideak eskaini.

2.2. Erakundeko ahozko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu

** Langile eta arduradun politikoengan eragin euskarara hurbiltzeko eta, dakitenak euskara gehiago erabiltzen has daitezten eta ez dakitenak ikastera animatzeko.

** Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileak elkarren berri izan dezaten eta gainerakoei ezagutzera emateko (mahai gainekoak...)

** Langileen arteko hizkuntza-ohiturak aldatzeko plan pilotuak martxan jarri.

** Euskaraz aritzeko gaitasun handirik ez duten langileei aukerak eskaini, euskaraz eroso senti daitezten.

3. IDATZIZKO KOMUNIKAZIOARI DAGOZKION NEURRIAK ETA EKINTZAK

3.1 Erakundearen idatzizko kanpo-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioaren kalitatea zainduta eta edozein euskarritan

** Hizkuntza Ofizialen Erabilerarako Irizpideak finkatu idatzizko kanpo-harremanetan, paper bidezkoetan zein telematikoetan, indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, euskaraz sortzera animatuz, kanpo-harremanetan euskara erabiltzeak duen garrantziaz jabetzeko.

** Kanpora begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu, euskaratu (beharrezkoa denean), moldatu (testu argiak, zuzenak eta egokiak izan daitezen) eta langileen esku jarri euskarri desberdinetan.

** Idazki elebidunetan euskara nabarmentzeko irizpideak zabaldu eta betetzen direla bermatu.

3.2 Erakundearen idatzizko barne-harremanetan euskararen erabilera gehitu, sortze lana areagotuz, komunikazioaren kalitatea zainduta eta edozein euskarritan.

** Adierazgarriak landu, euskaraz lan egiteko prestatuta dauden langileak identifikatu eta horiei informazioa hedatzeko protokolo bat zehaztu.

** Erakunde barruan komunikazioak euskaraz jaso nahi dituzten langileak identifikatu eta horiei informazioa hedatzeko protokolo bat zehaztu.

** Barrura begirako dokumentu estrategiko orokorrak identifikatu eta moldatu eta langileentzako erabilgarri eta eskuragarri jarri.

4. ITZULPENEI DAGOZKIEN NEURRIAK ETA EKINTZAK

4.1 Euskaraz ez dauden idazkien bertsio elebiduna ziurtatu

** Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak eta ulergarriagoak izan daitezen.

** Eguneratutako dokumentuak ezagutzera eman. Langile guztien esku jarri.

4.2 Sortze eta itzultze prozesuaren artean oreka lortu

** Euskaraz moldatzen diren langileak euskaraz sortzera animatu.

** Idazki-ereduak moldatu, zuzenagoak eta ulergarriagoak izan daitezten.

4.3. Euskarazko testuen kalitatea hobetu

** Langileak euskaraz sortzera animatu ondoren, zuzentze lanei lehentasuna eman, itzulpenen aurretik.

5. PRESTAKUNTZA OROKORRARI DAGOZKION NEURRIAK ETA EKINTZAK

5.1 Langileen prestakuntza orokorrean euskararen erabilera areagotu

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean, erakundeak langileen prestakuntza orokorrerako jarritako neurriak kontuan hartuta.

** Euskarazko ikastaro gehiago eskaini kalitatea aintzat hartuta (ikastaroaren edukiarri dagokionean eta komunikazio-tresnari dagokionean ere).

** Ezagutza egokia duten langileei euskara ikastaro berezituak eskaini.

** Ezagutza ez hain egokia duten langileei euskalduntzeko bideak eskaini.

6. TRESNA ETA APLIKAZIO INFORMATIKOEI DAGOZKIEN NEURRIAK ETA EKINTZAK

6.1 Tresna eta aplikazio informatikoetan euskararen erabilera gehitu

** Euskara nahiko ondo menperatzen dutenak animatu programa eta aplikazio informatikoen euskarazko bertsioak jar ditzaten.

** Euskaraz arazoak dituztenei Xuxen edota antzeko laguntzaileak instalatu ordenagailuetan

7. INTERNET

7.1 Webguneetan euskararen presentzia bermatu, komunikagarritasuna zainduta

** Langile euskaldunen nabigatzaileak euskaraz konfiguratu.

** Herritarrak kontuan hartu (esaterako, herritarrak animatuko ditugu web gunearen euskarazko bertsiora sar daitezten).

8. ARGITALPENAK

8.1 Argitalpenetan euskararen presentzia gehitu

** Argitalpenetako hizketa argia, zuzena eta egokia izatea sustatu

9. HIZKUNTZA PAISAIA

9.1 Erakunde barruko hizkuntza-paisaian euskararen presentzia gehitu

** Hizkuntza ofizialen erabilerarako irizpideak finkatu hizkuntza-paisaiaren arloan (noiz hizkuntza bietan, noiz euskara hutsean...), indarrean dauden lege-arau orokorrak aintzat hartuta.

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen artean eraikinetako hizkuntza-paisaia euskaraz egon dadin animatzeko.

** Hizkuntza-paisaia aztertu eta gabeziak antzeman ondoren, gaizki daudenak zuzendu eta gaztelaniaz daudenak euskaraz ere jarri.

** Euskara nabarmendu ele bietan dauden ohar edo errotuluetan.

** Langileen artxibo, karpeta eta abarrak euskaratu edota zuzendu.

9.2 Administrazioaren eraginpeko bide-seinale, toponimia eta gainerako noizbehinkako oharretan euskararen erabilera handitu

** Administrazioaren eraginpeko herriko seinale guztien gaineko azterketa egin eta gabeziak identifikatu.

** Administrazioaren eraginpeko bide-seinaleak euskaraz ere jartzeko prozedura zehaztu, kasuan kasuko arduradunarekin batera.

** Euskararen presentzia bermatu herriko obretan.

10. IRAGARPENAK, PUBLIZITATEA ETA KANPAINAK

10.1 Iragarpen, publizitate eta kanpainetan euskararen presentzia gehitu komunikagarritasuna zainduta

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu langileen eta arduradun politikoen artean erakundeak iragarpen, publizitate eta kanpainen arloan indarrean dauden hizkuntza irizpideak kontuan hartuta.

** Euskara argi, zuzen eta egokia erabili.

** Publizitatea egiterakoan, hizkuntza bakoitzaren berezitasunak eta esateko moduak errespetatu.

12. KONTRATAZIOAK

12.1. Kontratazioaren fase guztietan hizkuntza-irizpideak betetzen direla bermatu

** Komunikazioa eta sentsibilizazioa landu erakundeko kontratazio-organoetan, baldintza-orrietan hizkuntza-irizpideak finkatzeko eta txertatzeko.